BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2065

EBAZPENA, 2014ko apirilaren 25ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Bizkaiko lurralde-ordezkariarena, zeinen bidez deialdia egiten baita «Arratia Bailarako Konexio-sareak eta Enagaseko 43x00 Posizioak» –Dimako udalerrian– eragiten dieten finkak okupatu aurretiko aktak jasotzeko.

Erref.: CG-F-2013-005 JKE/BIZ.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2014ko otsailaren 7ko Ebazpenaren bidez, baimena eman zitzaion Naturgas Energia Distribución, S.A.U.ri «Arratia Bailarako Konexio-sareak eta Enagaseko 43x00 Posizioa» izeneko proiektua burutzeko, eta onura publikokotzat jo zen.

Hidrokarburoen urriaren 7ko 34/1998 Legearen 105. artikuluaren arabera (BOE 1998-10-08), onura publikoaren adierazpen horrek berekin dakar ondasunak okupatu edo ukitutako eskubideak eskuratu beharra eta, era berean, berekin dakar premiaz okupatu beharra, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluko ondorioetarako eta lege horrexen 53. artikuluko erregistro-ondorioetarako.

Bizkaiko lurralde-ordezkariak, aipatu 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikulua betez, jabeei eta ukitutako eskubideen titularrei Dimako Udalera dei egitea erabaki du, hortxe baitaude ukitutako ondasunak; izan ere, aktak udalerri horietan egingo dira, betiere, ukitutako ondasunak okupatu baino lehen eta, bidezkoa balitz, baita behin betiko okupatzeko akta ere; nolanahi ere, beharrezko denean, ondasunok dauden lekura ere joan ahal izango da.

Interesdunak eta ukitutako ondasunen gaineko eskubide edo interesak dituztenak eurak bertaratu beharko dira, edo, bestela, behar bezala baimendutako ordezkariren bat bidaliko dute; horrez gain, titulartasuna adierazteko egiaztagiriak eta kontribuzioaren azken erreziboa aurkeztuko dituzte, eta, nahi izanez gero, peritu edo notarioren baten laguntza ere eraman dezakete.

Aurreko aktak 2014ko ekainaren 24-26an jasoko dira. Aktak egiteko agindua zitazio-zedula baten bidez bidaliko zaie titularrei. Zitazio horretan lekua, eguna eta ordua adieraziko dira. Bestalde, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan jasotako gainerako argitalpenak ere beteko dira.

Naturgas Energía Distribución, S.A.U. izango da onuradun desjabetzearen espedientean.

Era berean, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 56.2 artikuluarekin bat etorriz, interesatuek eta, eskubide errealen edo ekonomi interesen titular izanik, argitaratutako zerrendan agertzen ez direnek idatziz aurkez ditzakete komenigarri deritzeten alegazioak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Bizkaiko Lurralde Bulegoan (Concha Jenerala kalea 23-5., Bilbao 48010). Okupatu aurreko aktak egiteko egunera arte aurkez ditzakete alegazioak; alegazioon helburua ukitutako ondasun eta eskubideak zerrendatzean eginiko akatsak zuzentzea soilik izango da.

Bilbao, 2014ko apirilaren 25a.

Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

ALDEZ AURRETIKO AKTETARAKO ZITAZIOA

ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA
«Arratiako Bailarako Sarea eta Enagasen 43x00 posizioa lotzeko Sarea»
Esp.: CG-F-2013/05 Erref.: JKE/BIZ

Dimako udalerrian

Lursaila	Katastroko datuak (Poligonoa-Partzela)	Titularra	Eguna	Hilabetea	Ordua	Udala
BI-DI-01	7-284	Enagas	24	Ekaina	09:00 h	Dima
BI-DI-02	7-283	Yurrebaso Aperribay, M. Luisa	24	Ekaina	09:30 h	Dima
BI-DI-03	7-282	Goti Artabe, David	24	Ekaina	10:00 h	Dima
BI-DI-04	7-305	Jauregui Larringan, Sabinalturbe Jauregui, Miren Eukene	24	Ekaina	10:30 h	Dima
BI-DI-05	7-CTR	Diputación Foral de Bizkaia	24	Ekaina	11:00 h	Dima
BI-DI-06	6-22	Elezcano Goti, Ramon	24	Ekaina	11:30 h	Dima
BI-DI-07	6-23	Artabe Iturbe, Manuel	24	Ekaina	12:00 h	Dima
BI-DI-08	6-134	Aldazabal Sopeña, Cosme	24	Ekaina	12:30 h	Dima
BI-DI-09	6-R-01	Ura-Agencia Vasca del agua	24	Ekaina	13:00 h	Dima
BI-DI-10	6-19	Hrdos de Yurrebaso Bilbao, Francisco Arroita Ugarriza, Agueda	26	Ekaina	09:00 h	Dima
BI-DI-11 BI-DI-13 BI-DI-14	6-28 6-29 6-27	Beovide Goti, M. Angeles	26	Ekaina	09:30 h	Dima
BI-DI-12 BI-DI-14 BI-DI-18	CMN CMN CMN	Dimako Udala	26	Ekaina	10:30 h	Dima
BI-DI-16	6-87	Pujana Mimenza, M. Teresa	26	Ekaina	11:30 h	Dima
BI-DI-17	6-163	Barrenechea Sagarna, Felisa	26	Ekaina	12:00 h	Dima
BI-DI-19	6-84	Hrdos de Atucha Basterrechea, Alfonso Felipe, M.ª Nieves Atucha Esparta	26	Ekaina	12:30 h	Dima